

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2011

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Entitateen gaineko txostena jaulki du, 2011ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Erakunde fiskalizatzaileak EAEn udalen eta udalaz gaindiko erakundeen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 251 udaletatik 250 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 64 erakundeetatik, 55enak. Txostenean, gainera, kontuak aurkeztu ez dituzten udal eta udalaz gaindiko erakundeak bereizi dira.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2011/12/31n erabilitako batez besteko zorpetzea udaleko sarrera arrunten gainean % 24.72koa izan dela. Biztanleko batez besteko zorpetzea 302 eurorena da. Guztira 74 udalek ez dute zorpetzerik eta 24 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa gainditzen dute.

Halaber, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 9ko beheraldia izan duela azaleratu da eta horrek biztanleko 1.412 euro egiten ditu batez beste.

Autonomia fiskalak sarrera guztien gainean zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa jasotzen du; 2011n % 37,83 egin du, aurreko ekitaldian baino % 4,80 gehiago.

HKEEk jakinarazi du udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzea aurreko urtekoa baino % 3,4 txikiagoa izan dela eta 564 milioi euro egin dituela guztira. Zor honen zatirik handiena, % 95, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da. Berebat, txostenean jaso du diru-laguntza bitartez eskuratutako diru-sarreraren ehunekoak % 41 egin duela behera 2011ko ekitaldian eskuratutakoekiko.

Txostenari gehitutako eranskinetan, gainera, kontuak auditatuak dituzten udalen zerrendaz gain, horietan azaleratu diren hutsen zerrenda eta udalen araberako xehapena

ere aurkeztu da. Berebat, HKEEren web orriko lotuneari buruzko informazioa ere ematen da; bertan erantsitako likidazioak ez ezik, erakundeen arabera xehatutako ekonomia-finantza izaerako hainbat informazio ere eskura daiteke.